

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4246

*1126/2017 EBAZPENA, abuztuaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Santa Marina Ospitaleko zuzendari nagusia izendatzen duena.*

Santa Marina Ospitaleko zuzendari nagusiaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori zuzendaritza nagusi honen uztailaren 14ko 977/2017 Ebazpenaren bitartez egin zen, eta 2017ko uztailaren 26ko EHAA n argitaratu (141 zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, José Luis Sabas Olabarria jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza nagusi honek hau

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.— José Luis Sabas Olabarria jauna Santa Marina Ospitaleko zuzendari nagusi izendatzea.

Bigarrena.— Izendapen honek 2017ko abuztuaren 28tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abuztuaren 23a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.